

ANALISIA



EH Bilduko Arnaldo Otegi eta EAJko Andoni Ortuzar parez pare, PSE-EEko Rafaela Romero tartean.

Hainbat galdera sartzean



Mikel Asurmendi
@masurmendi

La rentrée terminoa gero eta erabilia goa da Euskal Herrian. Iparraldean oso arrunta da, euskaldunek "sartzea" erabili ohi dute. Hitz "arrotz-arraro" samarra izan arren, emeki-emeki oihartzun eta lekua hartzen ari da Hegoaldean ere.

Sartzea arrunt erabilia da Iparraldean eskolarako itzulera adierazteko. Konparazioan, Seaska Ikastolaren inguruan, bai iaz, bai aurten, eta erran dezagun beti eta betiko, euskaldunen eskola sartzea zalapartatsua izanen da. Eta bai. Adibidez, aurten, Ipar Euskal Herriko Ikastolen Federazioak Frantziako Hezkuntza Ministerioari hogeita bost irakasle lanpostu berri eskatu dizkio, alta, horietatik bost baino ez dizkio onartu. Afera eternoa da. Nola egingen dute ikastolek Frantziako Estatuak euskal irakaskuntza itotzeko asmotik demokrazia fariseuko honetan salbu jalgitzeko?

Badira ere, literaturaren edota zinemaren inguruko sartzeak. Horiek Frantziaren gehiago Espainian baino. Nork bere jitea. Badago ere sartze politikoa, Frantziaren biziki sonatua, gero eta sonatuagoa ere Espainian. Euskal Herrian gero eta entzutetsuagoak dira sartze politikoa, Iparraldean nahiz Hegoaldean.

Frantziako Estatuan, adibiderako, Emmanuel Macron presidentearen eta lehen

ministro Édouard Philippearen Gobernuak Irabazien Zerga ordaintzeko sistema berria indarrean jarriko du 2019ko urtarri-laz geroztik. *Le prélèvement à la source de l'impôt sur le revenu* edo Irabazien Zergaren ordainketa diru iturritik kobratzen den unean ordaindu beharko dugu. Soldapekoa bazara zure nagusiak egingen du, eta jubilatua bazara, Erretreta Kutxak. Langile autonomo edo laboraria bazara administrazio fiskalaren bitartez egingen duzu. Galdera: nola ordainduko dugu mugaz gaindiko langileok, *transfrontaliér(e)s* deituek, jatorrizko erarako zerga?

Sartzea zalapartatsua ari da izaten Katalunian ere. Pedro Sánchez Espainiako presidentek onartu du katalan gehienek eskatutako erreferenduma. Alabaina, Espainian zaharrak berri dira kurto politikoaren hasieran, erreferenduma ez baita katalanek Kataluniako Errepublika eraiki ote dezaketen ebazteko, ez horixe. Erreferenduma izatekotan, Espainiako Erresuman segitzeko izanen da. "Bai" ala "Bai". Horretarako galdera egin behar al da? Hori lotsa! Francoren gorpuzkinak!

EAEn, EAJ eta EH Bilduren arteko ezkontza, mugatua ageri da berriz ere. Zertarako euren arteko eztei-bidaia, Euskal Herria Burujabera joan ahal izateko ez bada? Betiko galderak. ■

EKONOMIAREN TALAIAN

Ondare publikoa berreskuratu



Juan Mari Arregi

Espainiako Gobernuak publiko egingo du Eliza Katolikoak 1998tik immatrikulatutako ondarearen zerrenda ofizial osoa, nahiz eta hobe litzatekeen 1939tik aurrerakoa egitea. Eliza bere ondasunak egiaztatetik salbuetsita egon da 1946tik 2015era arte. Nahikoa zen gotzainak balekatzat ematea. Beraz, ondasun publiko eta pribatuaren bereganatze masiboa zein izan den ezagutuko dugu orain. Baina jadanik badakigu immatrikulazio horiek milaka erai-kin eta lur -kasu askotan lur komunak- jasotzen dituztela: zenbaiten arabera, Espainiako Estatu osoan 40.000 eta 60.000 artean dira Elizaren ondare zerrenda handiari gehitu zaizkionak; estatuko BPGren %2 izan liteke hori, PWC aholkularitzaren arabera.

Hego Euskal Herrian ondare publikoaren aldeko herri ekimenak sortu dira, Nafarroako Ondarearen Babeserako Plataformaren eta zenbait erakunderen partetik -Gasteizko eta Iruñeko legebiltzarretan-. Ekimen horiei esker badakigu Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan 505 ondare immatrikulatu direla gutxienez epe horretan, eta Nafarroan 1.087. Denera 1.592 ondare erregistratu ditu Elizak -udal-erri bakoitzeko hiru baino gehiago dira-. Horietako asko tenplu erlijiosoak eta ermitak dira, baina badaude baita ere orubeak, lursailak, plazak, frontoiak, futbol zelaiak, hilerriak, aurrak, pinudiak, olibariak...

Honek guztiak erakusten du Eliza, denboran barrena, kasu askotan modu ilegítimoan ondare pribatu eta publikoaren jabe egin dela. Garaia da behingoz argitzeko zer gertatu den; eta zerrenda ofizial hori publiko egin ondok, Elizak lan egin beharko luke inongo legimitaterik gabe kendutako ondarea itzultzen hasteko. Bete dezala bere mandamentuekin. Zazpigarrenak halaxe dio: "Ez duzu ostuko".